

# UME GORRA

## ESKOLATZEARI BURUZKO GALDE-ERANTZUNAK

GALDERA  
INTERESGARRIAK GORRERIA  
DUTEN SEME-ALABENTZAKO  
**ESKOLA** BAT AUKERATU  
BEHAR DUTEN GURASOENTZAT



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

# ERABAKIAK HARTZEKO PROZESUA UME GORRA ESKOLATZEKO ORDUAN



Gure beste edozein seme-alabarekin bezala, gorreria duen gure seme-alaba baten eskolatzeari ez da, bistan da, edonolako erabakia.

## IRITSI DA ESKOLATZEKO UNEA

Ume bat eskolan hastea beti izan da gertaera oso inportantea edozein familiarentzat.

Guraso askorentzat berebiziko garrantzia duen urratsa da; batzuek era traumatikoan bizi dute, beste batzuek arriskatu beharreko memento gisa, eta beste batzuek arazo moduan. Denok bizi izan dugu horrelako egoeraren bat.

Nolanahi ere, umearentzat beti da gertaera handi bat, batzuetan nolabaiteko banaketa dagoen uneetan pertsona helduok ditugun estuasunek kutsatutakoa, baina autonomiarako aurrerapauso bat betiere. Izan ere, beste pertsona batzuen gain jartzen da konfiantza (eskola hezitzaileen gain), eta aldi berean, gure seme edo alabari gero eta askatasun maila handiagoa aitortzea baitakar horrek.

## ZEIN DIRA ESKOLATZEKO AUKERAK?

**Ikastetxe arruntak.** Bertan, gorreria duten beste ume batzuekin egin dezake topo, edo beharbada ez. Banakako inklusio-eredu honetan, ikastetxeko edota eskualdeko laguntza-baliabideak edukiko lituzke; esate baterako, logopeda edo entzumen eta hizkuntza irakaslea.



**Taldekatze Proiektuak.** Horietan, gorreria duten beste ume batzuekin egingo luke bat. Ikastetxeko eta eskualdeko baliabideez gain, beste bereziago batzuk ere edukiko lituzke:

- Logopeda.
- Irakasle elebidunak (zeinu hizkuntza eta ahozko hizkuntza). Haur eta Lehen Hezkuntzan.
- Zeinu hizkuntzako interpreteak. Bigarren Hezkuntzan.

### **ZEIN DA ESKOLATZEKO HIZKUNTZA EREDU EGOKIENA?**

Erabaki honetan ere zure parte-hartzea ezinbestekoa da, eta ez da utzi behar kanpoko ezerk behartzen. Gurasoak dira eskolatzeari buruzko erabakia hartzen dutenak baina horretarako dauden teknikariengana jotzea da egokiena, haien informazioa eta orientazioa ezagutzeko.

Kontuan hartu behar da gure Autonomia Erkidegoa erkidego elebiduna dela, eta normalakuntzarako faktore bat, hezkuntza-prozesuan zehar irakaskuntza bi hizkuntza horietan hizkuntza gaitasuna ematen saiatzea da. Ume gorraren kasuan, hizkuntza eredia aukeratzea zailagoa da, beste hizkuntza bat dagoe-lako, zeinu hizkuntza alegia; dena den goiz ikastea bultzatuz gero, haurren garapen orokorra erraztuko du.

### **NOLA JASO ORIENTAZIOA MATRIKULATU BAINO LEHEN?**

Hezkuntza Sailak Onarpen Agindu bat ematen du urtero, eta bertan, eskaera-epeak eta onarpenean aplikatu beharreko baremoak agertzen dira. Agindu horrek, irakaskuntza publikoari zein kontzertatuari eragiten dio eta otsail edo martxo inguruan argitaratu ohi da. Beraz, eme egon behar duzu komunikabideetako iragarkiekin.

Seme-alaba baten onarpena eskatu nahi baduzu, izena eman nahi duzun ikastetxera joan behar duzu. Umeak hezkuntza-premia bereziak baditu, komeni da egoera hori adieraztea. Informazio horrek berebiziko garrantzia du bai beharrezko baliabideak erabilgarri edukitzeko bai Administrazioako zerbitzuek egindako aukerari buruzko orientazioa emateko.

Onarpen-eskaera egindakoan, hezkuntza-premia berezietako aholkulariak (lehen talde multiprofesionalak deituak) familiarekin jarriko dira harremanetan, egoeraren diagnostikoa egiteko. Horretarako, komeni da eurei eskueran daukazun informazio guztia ematea, eskolatzeko orientazio egokia eskaini ahal izateko.

Hezkuntza-premia berezietako aholkulariak eskola-inguru batean diharduten

A close-up photograph of two young boys with dark hair and bangs. The boy on the left is wearing a red shirt with a white and blue striped collar and is smiling broadly, showing his teeth. The boy on the right is wearing a dark blue long-sleeved shirt and is also smiling, with his arm around the other boy's shoulder. The background is a soft, out-of-focus green, suggesting an outdoor setting.

## ZEIN IKASTETXETARA BIDALI?

psikologo eta pedagogo-taldeak dira, eta ikasleen onarpen-prozesu honetan, euren zeregina da hasierako diagnostikoa zein eskolatzeko proposamena egitea eta une bakoitzean urmeak beharko dituen aparteko baliabideak zehaztea.

Aholkulari horiek, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasle gorrei dagokienez, ikasle gorren Lurralde Koordinatzailearen laguntza profesional berariazko dute.

## **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDE- GOAN, ESKOLATZEKO ERA ASKOTAKO AUKERAK DITUZU**

### **Haur eta Lehen Hezkuntzan:**

- Ikastetxe arruntetako ikasle gorren taldekatzeak.
- Banakako eskolatzeari laguntzarekin.
- Gorrentzako Ikastetxe Berezia.

### **Bigarren Hezkuntzan:**

- Elebidunak diren ikasle gorrentzako zeinu hizkuntzako interpretearen baliabide berezia duten ikastetxe arruntak (zeinu hizkuntza eta ahozko hizkuntza -hala euskaraz nola gaztelaniaz-).
- Irakasle elebidunen baliabide berezia duten ikastetxe arruntak (zeinu hizkuntza eta ahozko hizkuntza).
- Ikastetxe arruntak, laguntzarekin.

## **IKASLE GORRENTZAKO IKASTETXE ARRUNTETAKO TALDEKATZEAK**

Ikastetxe hauetan **bi hizkuntz aukera daude:**

- Ahozko hizkuntza bat (euskara edo gaztelania) eta zeinu hizkuntza aldi berean ikasteko aukera.
- Ahozko eredu arrunta.

Familia bakoitzak hartzen duen hizkuntz ereduaren aukera gorabehera, ikastetxe hauetan, bera bezala gorak diren beste pertsona batzuk ezagutzeko aukera ematen zaio umeari oso gaztetatik.

Identifikazio-eredu hurbilagoak izango ditu, eta hartara, umearen garapen orokor harmoniatsua erraztuko da.

Gainera, ikastetxe hauetan ahozko eredu arrunta hautatu duten familiei aukera ematen zaie, nahi izanez gero, astean behin ordubete inguruz umea zeinu hizkuntzako klasera joateko, bertan zeinu hizkuntzako oinarritzko komunikazio-gaitasuna har dezan.

Era berean, eskualdeko eta ikastetxeko baliabideez gain, **baliabide berezi hauek daude:**

- Zeinu hizkuntzan gaitasuna duten irakasleak.
- Ikastetxeko logopeda berezia.

Bizkaian **Gorren ikastetxe berezi bat** badago, eta bertan, planteamendu elebiduna dute.

## **LAGUNTZAK DITUEN IKASTETXE ARRUNTEKO ESKOLATZEA**

Aukera honetan, ikasleek ikastetxeko baliabide guztiak edukiko dituzte, baita profesionalek umearen parte-hartze aktiboa bultzatzeko beharrezkotzat jotzen dituzten laguntza tekniko bereziak ere.





**ZEIN PROFESIONALEK**

**LAGUNDU AHAL DIGUTE  
ERABAKIAK HARTZEN?**

**Ikasle Gorrak Eskolatzeko Lurralde  
Koordinatzailea**

**ARABA**

**MARISOL HORNAS**

Berritzegune A01

Avda. Gasteiz, 93

VITORIA-GASTEIZ

Tlfno. 945.21.80.20

e-mail: [nee1@berrigasteiz.com](mailto:nee1@berrigasteiz.com)

**BIZKAIA**

**KESARE KALTZAKORTA**

Berritzegune B01

Tolosa, 6- 3º

BILBAO

Tlfno. 94.470.35.46

e-mail:

[b01coorsordos@berrikuntza.net](mailto:b01coorsordos@berrikuntza.net)

**GIPUZKOA**

**GUTILLERMO AZKARATE**

Aransgi

Avenida de Francia, 9

DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

Tlfno. 943.27.50.55

e-mail: [donostia@aransgi.org](mailto:donostia@aransgi.org)



Beritzeguneen (Eskualdeko Laguntza Zentroen) hezkuntza-premia berezietako aholkulariak

## **ARABA**

### **VITORIA-GASTEIZ**

Avda. de Gasteiz, 93

Teléfono: 945-21.80.01

## **BIZKAIA**

### **BILBAO-ABANDO**

Tolosa, 6

Tlfno.: 94 410 63 02

### **BILBAO-TXURDINAGA**

Ondarroa, 14-bajo

Tlfno.: 94 412 16 14

### **BARAKALDO**

Zumalakarregi, 21

Tlfno.: 94 490 23 00

### **DURANGO**

Bernardo Gabiola, 5

Tlfno.: 94 620 06 02

### **GALDAKAO**

Arkobxa, 14 - Zaratamo

Tlfno.: 94 456 51 16

### **GERNIKA**

Artekale, 8-3º

Tlfno.: 94 625 35 46

### **GETXO**

Parque Gobelaurre, lonja 2

Tlfno.: 94 463 85 00

### **LEIOA**

Langileria, 106 - Lamiako

Tlfno.: 94 480 56 00

## **ORTUELLA**

Bº Urioste, 17

94 664 07 73

## **SESTAO**

Antonio Trueba, s/n

Tlfno.: 94 472 21 33

## **GIPUZKOA**

### **DONOSTIA**

Villa Fátima. Ataritzar Bidea, 16

Tfno: 943 32 00 87 y 943 32 00 33

### **EIBAR**

Universidad Laboral,

Edificio Jaizkibel, 3º. Otaola

Hiribidea, 29

Tlfno: 943 20 03 72

### **IRUN**

Villa Larramendiarena

Mayor, 43

Tlfno: 943 62 40 50

### **LASARTE**

Arranbide, 17

Tlfno: 943 37 20 99

### **ORDIZIA**

Bº Altamira, Okorro s/n

Tlfno: 943 88 79.50

### **ZARAUTZ**

Urdaneta, 12

Tfno: 943 13 06 43 y 943 83 46 72



**INTERESGARRIA IZAN DAITEKE  
ELKARTE HAUEKIN ERE  
HARREMANETAN JARTZEA**

**ARABA  
ASPASOR**

Asociación de Padres  
y Amigos de los  
Sordos de Alava  
C. Aragón, 11 bajo  
Vitoria-Gasteiz  
Tlfnº- Fax:  
945.28.73.92

**BIZKAIA  
ULERTUZ:**

Colegio Montaña  
Vía Vieja de Lezama,  
75 - 1ª pl.  
48.007 Bilbao  
Tno.: 94.413.33.00  
Fax: 94.413.22.52

**APASVI.**

Avda. de Madariaga,  
58  
48.014 Bilbao  
Tno.: 94.453.37.36

**GIPUZKOA  
ARANSGI.**

Paseo de Francia 9  
20.012 Donostia  
Tno.: 943.27.50.55 -  
943.27.55.32  
Fax: 943.29.08.09

**LURRALDE ARTEKOAK  
INTERTERRITORIALES**

**FEVAPAS. (Federación  
Vasca de Asociaciones  
de Padres y Amigos de  
Sordos)**

Aragón 11 bajo  
01.003 Gasteiz  
Tno.: 945.28.73.92

**FASE (Euskal Gorrak)**  
Ramón y Cajal 39, 3ª Pl.  
48.014 Bilbao.  
Tno.: 94.476.50.52  
Fax: 94.476.60.52



Umeari

# GORRERIA

diagnostikatu badiote

informazio hau zure  
interesekoa da



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN